

NESKA ZARA, MUTILA ZARA...

DENBORA: 4 eskola-ordu

IKAS-JARDUERAK

0 NESKA ZARA, MUTILA ZARA...

Helburua: Ikasleak sexuaren araberako portaera-elementu eta moldeak identifikatzen abiatzea.

Deskripzioa: Ikasleek alde zuzenetik sexuaren araberako ezberdintasunei buruz dituzten kontzeptuak identifikatzeko, azaleko irudi osatugabea erabiliko dugu.

Orientabideak: Bakarkako jarduera batetik abiatuz, taldekako gogoetara igaroko da, sortu den asoziazioa elkarren artean eztabaidatzeko. Ikasleek azaleko marrazkiak osatu eta irudiei izena jarriko diete, zer gertatzen den eta zergatik azalduz. Talde-lanean, pertzepzio horiek kontrastatuko ditugu, eta egin dituzten asoziazioak berdinak edo ezberdinak diren neurtuko ditugu.

1 GEZURRAK GEZUR

Helburua: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errazten ez duten atsotitzak eta esaerak aztertuko ditugu.

Deskripzioa: Atsotitzak eta esaerak irakurriz, ikaslek ohiz egiten diren baiezen sexistaz gogoeta egitera eramango ditugu.

Orientabideak: Generoaren araberako bereizkeriarik adierazten ez duten atsotitzak eta esaerak bilatzea proposa daiteke.

2 NORK EGITEN DU ZER?

Helburua: Familiaren baitan gertatzen den generoaren araberako desberdintasunei buruz gogoeta egitea.

Deskripzioa: Eguneroko jarduera batzuk aurkeztuz, zeregin horiek etxean nork egiten dituen galdetuko zaie ikasleei. Etxeko zereginak modu ekitatiboan banatzeari buruzko gogoeta egin dezaten lagunduko zaie ikasleei.

Orientabideak: Ikasleek etxean nola jokatzeko balio du jarduerak, eta, behar izanez gero, portaera aldetzea proposatuko zaie.

3 OPARIEN TXANDA

Helburua: Gure eguneroko bizitzan —opariak egitean, adibidez— aurreiritzi batzuk ditugula nabarmentzea.

Deskripzioa: Marrazkietatik abiatuz, ikasleek zer opari egin behar dituzten pentsatu behar dute (aitari, amari, neba-arrebei, lagunei, ikaskideei, etab.). Azkenean elkarrekin komentatuko da zergatik aukeratu diren opariak.

Orientabideak: Nolako opariak egin diren ikusiz, askotan sexuaren arabera egiten direla konturatuko gara.

4 LANBIDEAK

Helburuak: Lanbidea, gehienetan, sexuarekin lotuta dagoela nabarmentzea. Edozein pertsona, sexuari erreparatu gabe, edozer lanbidetan aritzeko gai dela nabarmentzea, Etxeko zeregina ordaindu gabeko jarduera profesionala dela ulertzea.

Deskripzioa: Etxekoen lanbideak aipatuz hasiko gara. Gero, irudiak kontuan hartuz, gehien gustatzen zaizkien hiru lanbideak marrazteko eskatuko diegu, eta zergatik den esateko.

Orientabideak: Jarduera hau hurbileneko ingurutik hasiko da, eta etorkizunean lanbide edo profesio bat hartzeko ilusioak zeintzuk diren esanaz amaituko da. Neskek eta mutilek jakingo dute beren etxekoek zertan lan egiten duten. Ez badakite, galdetu egingo diete, eta horrela etxekoek beren lana nolakoa den azaltzeko aukera izango dute. Arbelean idatz daitezke lanbideak edo profesioak.

Lanbideak aztertzean, agian soslai maskulinoak eta femeninoak ageriko dira. Soslai horiek gaindi daitezkeela azalduko zaie ikasleei, lanbide

bat edo bestea hartzea norberaren motibazioaren eta prestakuntzaren arabera izaten baita. Ondoren, ikasleek handiak direnean zer izan nahi duten esango dute, eta marraztutako lanbideetatik zein duten gustukoena adieraziko dute. Gustukoena dituzten lanbideak aukera ditzaten eskatuko diegu, eta ez sexuari erreparatu.

5 JOLAS EGINGO AL DUGU?

Helburua: Nesken eta mutilen arteko jolasetan ezberdintasunik badagoen behatzea, eta baiezkoan, zergatik den hausnartzea.

Deskripzioa: Ikasleek (astebetean zehar) jolas-orduan neskek eta mutilek zertan jolasten duten behatu eta idatziko dute. Lan-taldean batuta, emaitzak aztertuko dituzte.

6 LORNA-REN MEZUA

Helburua: Bestelako errealitate batera hurbiltzea.

Deskripzioa: Gure ikasleen adina duen neska batek —Lorna-k— e-mail bat bidali digula itxuratuko dugu. Horrela, gurea ez den testuinguru batean sartuko gara gaia aztertzeko.

Orientabideak: Gure ikasleek unibertsalizatzeko ohitura har dezaten saiatuko gara, giza eskubideak edozein tokitan urratzen direla ikusaraziz.

7 NIK ESKUBIDEAK DITUT, ZUK ESKUBIDEAK DITUZU...

Helburua: Pertsonen eskubide-berdintasunaz gogoeta egitea, sexuari erreparatu gabe.

Deskripzioa: Marrazkien eta kontzeptu abstraktoen arteko erlazioa eta identifikazioa adierazten duen joko bat proposatzen dugu, hezkuntzaz, elikaduraz, aisiaz, osasunaz eta zorionaz mintzatzeko. Denok, sexu batekoak zein besteak izan, leku batean edo beste batean jaio, eskubide berberak ditugula adierazi nahi dugu, eta eskubideak errespetatzekoak direla.

Orientabideak: Aurreko ideia sakonduko da. Jarduera bukatzeko, Giza Eskubideen aldeko Deklarazio Unibertsala edo Haurren Eskubideak irakur daitezke.

8 LORNA-RENTZAKO MEZUA

Helburua: Monografikoan egindako lana laburbiltzea. Generoen arabera ezberdintasun-egoeren aurrean, jarrera kritikoa bultzatzea.

Deskripzioa: Lorna-k adierazi diguna ikusita, erantzun bat emango diogu denon artean. Mezua hedatzeko aukerak aztertuko dira: eskola osoan, familian, tokiko prentsan, etab.

Orientabideak: Generoa dela-eta dauden bereizkeria-egoeren aurrean, jarrera kritikoa lantzea ahalbidetzen du jarduerak. Mezua egiteko, eztabaidan atera diren ideiak erabiliko dira. Izan ere, aurkitu dutena ezagutarazteko interesa piztu behar zaie, eta eska diezaietela pertsona nagusiei generoen arabera bereizkeria kentzeko konponbideak aurki ditzatela.

GLOSATEGIA

GENEROA/SEXUA, SOZIOLOGIAREN ARABERA

Gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasun sozialei (ez biologikoei) dagozkien kontzeptua, zeinak ikasi egiten diren, denborearen poderioz aldatu eta kulturen artean eta kultura bakoitzaren baitan agertzen diren.

SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNA



Gizaki guztiak beren gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak harzteko libre sentitzen direneko egoera, ohituren arabera mugarik gabe, zeinean gizonen zein emakumeen portaera, gogo eta premia guztiak berdin hartu, baloratu eta bultzatzen diren.

GENERO-SISTEMA

Eginkizun maskulinoa eta femeninoa mantendu eta ohiz gizonari eta emakumeari esleitu zaiona bere hartan betikotzen duen egitura sozio-ekonomiko eta politikoa.

LMHko 1. ZIKLOA

NESKA ZARA, MUTILA ZARA...



1 QEZURRAK QEZUR

Neska-kontuak dira hauek.

Arrosa kolorea neskentzat da, eta urdina mutilentzat.

Mutilek ez dute negarrik egiten.

Ezagutzen al duzu antzeko esaerarik? Idatz itzazu.

Zure ustez, zer esan nahi dute?

Ados al zaude esaera horiekin?



2

NORK EGITEN DU ZER?

Zure etxean nork...

egiten du janaria?

kontatzen ditu ipuinak?

jartzen du mahaia?

lisatzen du arropa?

esekitzen ditu koadroak?

aldatzen ditu bonbilak?




Zure ustez, ondo banatuta al daude etxeko zereginak?

Zure etxean ba al dago etxeko zereginak egiten ez dituen inor?

Zergatik?

3

OPARIEN TXANDA



4


LANBIDEAK

Zein da zure aitaren lanbidea?

Eta zure amarena?

Zuk zer izan nahi duzu handia izango zarenean?

Zenbaitu itzazu lanbide hauek 1etik 3ra, gehien gustatzen zaizunari 1 emanaz, eta 3 gutxien gustatzen zaizunari.



5

JOLAS EGINGO AL DUGU?

Begiratu neskei eta mutilei. Zertan jolas egiten dute?

Mutilek

Neskek

6 LORNA-REN MEZUA



Lorna dut izena eta Kenia-n bizi naiz. Hiru neba-arreba gara, bi mutil eta ni. Gurasoek ezin dute hiruron eskola ordaindu, eta erabaki dute nik uztea ikasteari. Nire nebek ikasturtea beteko dute, eta gauza asko ikasi ahal izango dituzte. Nik medikua izan nahi nuke jendea sendatzeko, baina ez badut ikasterik, ez naiz medikua izango. Seme-alabarik banu, denak eskolara joatea nahi nuke, neskak eta mutilak.

Zer pentsatzen duzu Lorna-k kontatzen digunari buruz?
Justua al da eskola utzi behar izatea?



7 NIK ESKUBIDEAK DITUT, ZUK ESKUBIDEAK DITUZU...

Eskubide berberak ditugu denok. Neskak izan ala mutilak izan, denok dauzkagu marrazkietan agertzen diren eskubideak.



Lorna bezalako jende asko dago munduan, emakumeak izateagatik aukera berberak ez dituztenak.

Idatz iezaiozue Lorna-ri, esanaz zer egin dezakegun guk egoera injustu hori aldatzeko?

